10.- ESLEIPENDUNAREN ERANTZUKIZUNA KONTRATUA BURUTZEAN BESTE BATZUEI ERAGINDAKO KALTEENGATIK	**10.- RESPONSABILIDAD DEL CONTRATISTA POR LOS DAÑOS CAUSADOS A TERCEROS DURANTE LA EJECUCIÓN DEL CONTRATO**
Esleipendunaren ardura da kontratuko eragiketen ondorioz sortutako kalteak eta galerak bere gain hartzea, SPKLren 196. artikuluan zehaztutakoarekin bat etorriz.	El contratista será responsable de los daños y perjuicios que se causen como consecuencia de las operaciones que requiera la ejecución del contrato, de acuerdo con lo dispuesto en el artículo 196 de la LCSP.
Esleipendunak gutxienez 150.000 euroko erantzukizun zibileko aseguru bat kontratatu eta aurkeztu beharko du. Aseguru honek, kontratuaren betearazteak hirugarrengoengan sor dezakeen edozein kalterengatik erantzungo du, eta kontratista zerbitzua gauzatu bitartean edozein pertsonari, jabetzari edo zerbitzuri, bere ardurapeko langile, instalazio eta tresnek eragin diezaieketen kalte eta galeren erantzule izango da.	El adjudicatario deberá contratar y presentar un seguro de responsabilidad civil por un importe mínimo de 150.000 euros que responda de los daños causados a terceras personas, bienes o servicios derivados de la ejecución del contrato; asimismo será responsable de los daños y perjuicios ocasionados a terceras personas, bienes o servicios por el personal a su cargo, instalaciones o instrumentos.
11.- KONTRATUAREN ALDAKETAK	**11.- MODIFICACIONES DEL CONTRATO**
Kontratua aldatu ahal izango da SPKLren 205. artikuluan berariaz aurreikusitako inguruabarrak gertatzen direnean.	El contrato podrá modificarse cuando concurran las circunstancias previstas expresamente en el art. 205 de la LCSP.
Aipatutako aldaketak nahitaez bete beharko ditu kontratistak, 206. artikuluan ezarritako baldintzen arabera.	Las posibles modificaciones referidas anteriormente serán obligatorias para el contratista en los términos establecidos en el artículo 206.
12.- HARRERA ETA BERME-EPEA	**12.- RECEPCIÓN Y PLAZO DE GARANTÍA**
Kontratu honetako helburua den zerbitzua ematen bukatu eta gehienez ere hilabeteko epean kontratuaren harrera formala eta positiboa egingo	En el plazo máximo de 1 mes desde la finalización de la prestación objeto del contrato se producirá el acto formal y positivo de recepción.

da, eta horren akta egingo da.	
Berme-epea urtebetekoa izango da.	Se establece plazo de garantía de un año.
13.- ESLEIPENDUNARENTZAKO ZIGORRAK, KONTRATUA EZ BETETZEAGATIK	**13.- PENALIDADES AL CONTRATISTA POR INCUMPLIMIENTO**
13.1 KONTRATUA EGIKARITZEKO EPEAK EZ BETETZEA	13.1 INCUMPLIMIENTO DE LOS PLAZOS DE EJECUCIÓN DEL CONTRATO
Baldin eta kontratista, berari egotz dakizkiokeen arrazoiak medio, azken epea betetzeko orduan berandutze-egoeran jarri bada, Administrazioak aukeran izan dezake, kasuaren arabera, edo kontratua suntsiaraztea, edo eguneko zigorrak ezartzea proportzio honetan: kontratuaren prezio osoan dagoen 1.000 euroko kopuru bakoitzeko 2 euro egunero, BEZ gabe.	Cuando el contratista, por causas imputables al mismo, hubiere incurrido en demora respecto al cumplimiento del plazo total, la Administración podrá optar, atendidas las circunstancias del caso, por la resolución del contrato o por la imposición de las penalidades diarias en la proporción de 2 euros por cada 1.000 euros del precio del contrato, IVA excluido.
Berandutzeagatiko zigorrak kontratuaren prezioaren (BEZ gabe) 100eko 5eko multiplo batera iristen diren bakoitzean, kontratazio-organoak ahalmena izango du, edo kontratua suntsiarazteko, edo, zigor berriak ezarrita, kontratua gauzatzen jarraitzea erabakitzeko.	Cada vez que las penalidades por demora alcancen un múltiplo del 5 por 100 del precio del contrato, IVA excluido, el órgano de contratación estará facultado para proceder a la resolución del mismo o acordar la continuidad de su ejecución con imposición de nuevas penalidades.
Administrazioak aurreko ataletan adierazten diren ahalmen berberak izango ditu, kontratistak epe partzialak betetzen ez dituenean, edo horiek ez betetzeak epe osoa ez betetzea ekarriko duela ondorioztatzen denean.	La Administración tendrá las mismas facultades a que se refieren los apartados anteriores respecto al incumplimiento por parte del contratista de los plazos parciales, o cuando la demora en el cumplimiento de aquellos haga presumir razonablemente la imposibilidad de cumplir el plazo total.
13.2 PRESTAZIOEN BURUTZAPEN PARTZIALA EZ BETETZEA	13.2 INCUMPLIMIENTO DE LA EJECUCIÓN PARCIAL DE LAS PRESTACIONES
Kontratistak, bere erruagatik, kontratuko prestazioen burutzapen partziala epean bukatzen ez badu, Administrazioak bi aukera izango ditu, kasuaren arabera: kontratua bertan behera uztea edo kontratuaren prezio osoaren 100eko 10eko diru-zigorra ezartzea.	Cuando el contratista, por causas imputables al mismo, hubiere incumplido parcialmente la ejecución de las prestaciones definidas en el contrato, la Administración podrá optar, atendidas las circunstancias del caso, por su resolución o por la imposición de una penalidad equivalente al 10 por 100 del precio total del contrato.
13.3. KONTRATUAREN PRESTAZIOA GAIZKI BETETZEA, EDO KONTRATUAREN KONPROMISOAK EDO EGIKARITZE BALDINTZA BEREZIAK EZ BETETZEA	13.3. CUMPLIMIENTO DEFECTUOSO DE LA PRESTACIÓN OBJETO DEL CONTRATO O PARA EL SUPUESTO DE INCUMPLIMIENTO DE LOS COMPROMISOS O DE LAS CONDICIONES ESPECIALES DE EJECUCIÓN DEL CONTRATO.
Zigor horiek ez-betetzearen larritasunarekiko proportzionalak izan beharko dute, eta haietako bakoitzaren zenbatekoak ezingo du kontratuko prezioaren 100eko 10 gainditu (BEZ gabe), eta horien kopuru osoak ezin du kontratuaren prezioaren ehuneko 50 gainditu.	Las penalidades deberán ser proporcionales a la gravedad del incumplimiento y las cuantías de cada una de ellas no podrán ser superiores al 10 por ciento del precio del contrato, IVA excluido, ni el total de las mismas superar el 50 por cien del precio del contrato.
Kontratua gauzatzean esleipendunak egiten dituen arau-hausteak oso larriak, larriak edo arinak izan	Las infracciones que cometa el la adjudicataria adjudicatario en la ejecución de los trabajos se

IFK/CIF P2006900A
Tel. 943 344034
Luz./Ext. 932
Donibane kalea, 19
20110 Pasaia

KUDEAKETA
kudeaketa@pasaia.net

T020300

Financiado por la Unión Europea NextGenerationEU
GOBIERNO DE ESPAÑA MINISTERIO PARA LA TRANSICIÓN ECOLÓGICA Y EL RETO DEMOGRÁFICO
Plan de Recuperación, Transformación y Resiliencia
PASAIAKO UDALA

daitezke.

A) Arau-hauste **oso larriak** dira:

- Ezarritako epeetan zerbitzua ematen ez hastea, edo zerbitzua etetea, ezinbesteak bultzatuta izan ezean.
- Zerbitzuak osorik edo sorta batean lagatzea, berrakuratzea edo besterentzea, Udalak berariaz baimentzen ez badu.
- Zerbitzua emateko edo gauzatzeko garaian arduragabekeriaz edo arauz kanpo aritzea.
- Deontologia profesionalak onartzen dituen etika- eta heziketa-arauen aurkako jokabideak izatea.
- Zerbitzuaren zaintzaz arduratzen den Zerbitzuko arduradunek emandako jarraibideak desobeditzea, lanaren garapenari dagokionez eta, oro har, zerbitzua arautzen duten arauei dagokienez.
- Kontratatutako langileek zerbitzuaren hartzaileekin istiluak izatea, bai tratu desegokia eman dietelako, bai zerbitzua emateko garaian ondo aritu ez direlako.
- Agiri honetan ezarritako baldintza edo betebeharrak ez betetzea, gerora hortik erator daitezkeen egintzak eragotzi gabe.
- Bi arau-hauste larri edo gehiago egitea.

B) Arau-hauste **larriak** dira:

- Udalak esleipendunaren eskura utzitako bitarteko materialen eta azpiegituraren erabilera okerra egitea.
- Arau-hauste arinak behin eta berriro errepikatzea.
- Era batera edo bestera agiri hauetan ezarritako baldintzak kaltetzea eta zerbitzuari kalte larria sortzea.

C) Arau-hauste **arinak** dira:

- Gainerako arau-hauste guztiak, era batera edo bestera agiri hauetan ezarritako baldintzak kaltetu eta zerbitzuari larria ez

calificarán como muy graves, graves y leves.

A) Tendrán consideración de infracciones **muy graves**:

- El no iniciar la prestación del servicio en los plazos establecidos o la cesación en la prestación del mismo, salvo causas de fuerza mayor.
- La cesión, subarriendo o traspaso total o parcial de los servicios, sin autorización expresa del Ayuntamiento.
- La prestación o ejecución manifiestamente negligente o irregular de los trabajos.
- Comportamientos de los que se desprendan actuaciones contrarias a las normas éticas y educativas aceptadas por la deontología profesional.
- La desobediencia a las instrucciones de los responsables del Servicio encargado de la vigilancia de la prestación, relativas al desarrollo del trabajo y, en general, a las normas que regulan la prestación de los mismos.
- Los incidentes del personal contratado con los destinatarios del servicio y el ciudadano en general, tanto por trato incorrecto, como por deficiencia en la prestación del trabajo.
- El incumplimiento de cualquiera de las condiciones y obligaciones establecidas en estos Pliegos, sin perjuicio de las acciones posteriores que de ello se deriven.
- Reiteración de dos o más infracciones graves.

B) Tendrán consideración de infracciones **graves**:

- La utilización incorrecta de los medios materiales e infraestructura puestos a disposición del adjudicatario por el Ayuntamiento.
- La reiteración en la comisión de faltas leves.
- Aquellas que de algún modo signifiquen detrimento en las condiciones establecidas en estos Pliegos, con perjuicio grave de la prestación del Servicio.

C) Tendrán consideración de infracciones **leves**:

- Todas las demás no previstas anteriormente y que de algún modo signifiquen detrimento en las condiciones establecidas en estos

den kaltea sortzen diotenak.

Kontratistari zehapen hauek ezar dakizkioke arau-hausteengatik:

- Arau-hauste oso larriengatik: 600 eurotik hasi eta behin betiko bermera bitarteko isunak.
- Arau-hauste larriengatik: 150 eurotik 600 eurora bitarteko isunak, gertakarien larritasunaren arabera.
- Arau-hauste arinengatik: ohartarazpena beti, eta 150 arteko isunak ere jar daitezke, gertakarien larritasunaren arabera.

Hala ere, arau-hauste oso larriak egiten direnean, Udalak bi aukera izango ditu: klausula honetan aurreikusitako zehapen horiek jarri, edo kontratua amaitzeko espedientea abiarazi.

14.- KONTRATUA AMAITZEKO ARRAZOIAK

Kontratua amaitzeko arrazoiak Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 211. eta 245. artikuluetan ezarritakoak izango dira.

Nolanahi ere, kontratua kontratistak kontratua bete ez duelako suntsiarazten denean, bermea konfiskatuko zaio eta, gainera, eragindako kalte eta galerak ordaindu beharko dizkio Udalari, behin betiko bermearen zenbatekotik gora. Nolanahi ere, kontratua suntsiarazteko erabakian, eratutako bermea galtzea, itzultzea edo ezereztea bidezkoa den edo ez adierazteko berariazko aipamena jaso beharko da.

15. ADMINISTRAZIOAREN ESKUBIDEAK

Administrazioari dagokio a) kontratua interpretatzea, b) kontratuan sor daitezkeen zalantzak ebaztea, c) herri-onurako arrazoiengatik kontratua aldatzea, d) kontratistari egotz dakiokeen erantzukizuna adieraztea, kontratuaren egikaritzearen ondorioz, e) kontratuari amaiera ematea, eta f) kontratua deuseztatzea eta horren ondorioak zehaztea; Sektore Publikoko Kontratuen Legean eta Herri Administrazioen Kontratuei buruzko Legearen Araudi Orokorrean ezarritako muga, baldintza eta ondorioei eutsiz.

Halaber, kontratazio-organoak ahalmena du kontratuaren egikaritzean kontratistek garatutako jarduerak ikuskatzeko, SPKLk ezarritako eran eta jarritako mugen barruan.

Pliegos, con perjuicio no grave de la prestación del Servicio.

Las sanciones que se podrán imponer al contratista serán las siguientes:

- Por la comisión de faltas muy graves: multas a partir de 600 euros, hasta el importe de la garantía definitiva.
- Por la comisión de faltas graves: multas de más de 150 a 600 euros en función de la gravedad de los hechos.
- Por la comisión de faltas leves: en todo caso apercibimiento, pudiendo imponerse multas de hasta 150 euros en función de la gravedad de los hechos.

No obstante, en caso de infracciones muy graves el Ayuntamiento podrá optar entre la imposición de estas sanciones, según lo previsto en esta cláusula, o el inicio del correspondiente expediente para la resolución del contrato.

14.- CAUSAS DE RESOLUCIÓN DEL CONTRATO

Constituyen causas de resolución las establecidas en el artículos 211 y 245 de la Ley de Contratos del Sector Público.

En todo caso, cuando el contrato se resuelva por incumplimiento del contratista, le será incautada la garantía y deberá, además, indemnizar al Ayuntamiento los daños y perjuicios ocasionados en lo que exceda del importe de la garantía definitiva. En todo caso, el acuerdo de resolución contendrá pronunciamiento expreso acerca de la procedencia o no de la pérdida, devolución o cancelación de la garantía que se hubiese constituido.

15. PRERROGATIVAS DE LA ADMINISTRACIÓN

Corresponden a la Administración las prerrogativas de a) interpretar el contrato, b) resolver las dudas que ofrezca su cumplimiento, c) modificarlo por razones de interés público, e) declarar la responsabilidad imputable al contratista a raíz de la ejecución del contrato, e) suspender la ejecución del mismo, y f) acordar su resolución y determinar los efectos de ésta, dentro de los límites y con sujeción a los requisitos y efectos establecidos en la LCSP, así como en el Reglamento General de la Ley de Contratos de las Administraciones Públicas.

Igualmente, el órgano de contratación ostenta las facultades de inspección de las actividades desarrolladas por los contratistas durante la ejecución del contrato, en los términos y con los límites establecidos en la LCSP

IFK/CIF P2006900A
Tel. 943 344034
Luz./Ext. 932
Donibane kalea, 19
20110 Pasaia

KUDEAKETA
kudeaketa@pasaia.net

T020300

Financiado por la Unión Europea NextGenerationEU
GOBIERNO DE ESPAÑA MINISTERIO PARA LA TRANSICIÓN ECOLÓGICA Y EL RETO DEMOGRÁFICO
Plan de Recuperación, Transformación y Resiliencia
PASAIAKO UDALA

II.- KONTRATATZEKO JARDUNBIDEA	II.- PROCEDIMIENTO PARA CONTRATAR
16.- ESLEITZEKO PROZEDURA	**16.- PROCEDIMIENTO DE ADJUDICACIÓN**
Kontratu hau prozedura irekiaren bidez esleituko da, SPKLren 156. artikuluarekin bat etorriz, eta esleipen-irizpide gisa ondoren zehaztutakoak erabiliko dira:	La adjudicación del presente contrato se realizará por procedimiento abierto, de acuerdo con el artículo 156 de la LCSP, utilizándose como criterios de adjudicación, los que a continuación se concretan:
A) BALORAZIO AUTOMATIKORAKO IRIZPIDEAK: 80 puntu gehienez	**A) CRITERIOS DE VALORACIÓN AUTOMÁTICA: hasta 80 puntos**
Puntuaziorik handiena preziorik merkeenari emango zaio, eta gainerako eskaintzen puntuazioa lortzeko, biderkatu egingo da preziorik merkeenaren eta lizitatzailearen eskaintzaren arteko zatiduraren emaitza, eta biderkatu egingo da irizpideari aplika dakizkiokeen puntuen guztizkoarekin. Hau da, Hau da: PL=(Ob/Ol)* 80 Non: PL:Lizitatzailearen puntuazioa Ob:Eskaintzarik baxuena Ol: Lizitatzailearen eskaintza Oharra: balorazioa BEZa kontuan hartu gabe egingo da.	Se otorgará la máxima puntuación al precio más económico y la puntuación del resto de las ofertas se desprende de la fórmula de multiplicar el resultado del cociente entre el precio más bajo y la oferta del licitador que se valora por el número total de puntos aplicables al criterio. Esto es, Pl= (Ob/Ol) * 80 Donde: Pl: Puntuación licitador Ob: Oferta más baja Ol: Oferta licitador Nota: la valoración se realizará sin tener en cuenta el IVA.
B) BALIO-IRITZIEN BIDEZ BALIOEZTEKO IRIZPIDEAK: 20 puntu arte	**B) CRITERIOS SUJETOS A JUICIO DE VALOR: hasta 20 puntos**
Proposamen teknikoan honako alderdi hauek baloratuko dira: - Proposatzen den lanen planaren sakontasuna, xehetasuna eta argitasuna baloratuko da, eta fase bakoitzean egingo diren jarduketa zehatzen koherentzia eta egokitasuna kontratuaren xedearekiko: (i) HOPIa idazteko datuak jasotzea, (ii) HOPIa idaztea, (iii) HOPIaren ezarpena eta udaleko teknikarien prestakuntza eta (iv) HOPIaren monitorizazioa. Era berean, kontratuari atxikitako giza-baliabideei dagokionez lizitatzaileak egiten duen plangintzaren egokitasuna baloratuko da eta, aldi berean,	En la propuesta técnica se valorarán los siguientes aspectos: - Se valorará la exhaustividad, el detalle y la claridad del plan de desarrollo de los trabajos propuesto y la coherencia y adecuación al objeto del contrato de las actuaciones concretas a llevar a cabo en cada una de las fases (entendiéndose por fases las siguientes: (i) Recopilación de datos para la redacción del PIAS, (ii) Redacción del PIAS, (iii) Implantación del PIAS y formación al personal técnico de municipal y (iv) Monitorización del PIAS). Asimismo, se valorará la idoneidad de la planificación que realice la empresa licitadora

proposatzen den koordinazio-prozeduraren koherentzia eta egokitasuna.	respecto a los medios humanos adscritos al contrato y, asimismo, la coherencia e idoneidad del procedimiento de coordinación propuesto.
Aurkeztutako testu guztiek honako parametroak bete beharko dituzte irizpide horiei dagokienez: ✔ Dokumentazioaren gehieneko luzera (azalak eta aurkibideak kontuan hartu gabe): Gehienez 12 orrialde (eranskinak barne). 13. orrialdetik aurrera (hau barne) ez da irakurriko, ezta baloratuko ere. ✔ Letra mota eta gutxieneko tamaina: Arial 10.	Todos los textos escritos que se presenten en relación a estos criterios deberán redactarse con los siguientes parámetros: ✔ Extensión máxima documentación (sin considerar portadas o índices): Máximo 12 páginas (incluidos anexos). A partir de la página 13 (ésta incluida) no se leerá, ni se valorará. ✔ Tipo de letra y tamaño mínimo: Arial 10
<u>Kanpo geratuko dira balorazio teknikoan 15 puntu lortzen edo gainditzen ez dituzten eskaintzak.</u>	<u>Quedarán excluidas aquellas ofertas que no obtengan o superen 15 puntos en la valoración técnica.</u>
SPKLren 147.2. artikuluan xedatutakoarekin bat, kontratua esleitzeko irizpideak aplikatu ondoren, berdinketarik balego, honako gizarte-irizpideak aplikatuko dira hurrenkera honetan, eskaintzak aurkezteko epea bukatzen den uneari dagozkionak: a) Enpresa bakoitzaren plantillan ezintasuna duten edo gizarte-bazterkeria egoeran dauden langileen portzentaje handiena; berdinketarik balego, lehentasuna emango zaio plantillan ezintasuna duten langile finkoen kopuru handienari, edo plantillan lan-munduratzen ari den langile kopuru handienari. b) Enpresa bakoitzaren plantillan aldi baterako kontratuen portzentaje txikiena. c) Enpresa bakoitzaren plantillan dagoen emakume portzentaje handiena. d) Aurreko irizpideak aplikatu ondoren, berdinketa izango balitz, zozketa egingo da.	De conformidad con lo dispuesto en el artículo 147.2 LCSP, el empate entre varias ofertas tras la aplicación de los criterios de adjudicación del contrato se resolverá mediante la aplicación por orden de los siguientes criterios sociales, referidos al momento de finalizar el plazo de presentación de ofertas: a) Mayor porcentaje de trabajadores/as con discapacidad o en situación de exclusión social en la plantilla de cada una de las empresas, primando en caso de igualdad, el mayor número de trabajadores fijos con discapacidad en plantilla, o el mayor número de personas trabajadoras en inclusión en la plantilla. b) Menor porcentaje de contratos temporales en la plantilla de cada una de las empresas. c) Mayor porcentaje de mujeres empleadas en la plantilla de cada una de las empresas. d) El sorteo, en caso de que la aplicación de los anteriores criterios no hubiera dado lugar a desempate.
Berdinketa desegiteko irizpide horiek ezartzeko ondorioetarako, lizitatzaileek alderdi horiek egiaztatuko dituzte dagozkion lan-kontratuekin eta Gizarte Segurantzaren kotizazio-agiriekin, eta adierazitako gizarte-irizpide horiek egiaztatzeko zuzenbidean onartzen diren bestelako agiriekin.	A efectos de aplicación de estos criterios de desempate, los licitadores deberán acreditarlos, en su caso, mediante los correspondientes contratos de trabajo y documentos de cotización a la Seguridad Social y cualquier otro documento admitido en derecho que acredite los criterios sociales anteriormente referidos.
Berdinketa desegiteko irizpideak egiaztatzeko agiriak berdinketa gertatzen den unean aurkeztuko ditu lizitatzaileak, ez lehenago.	La documentación acreditativa de los criterios de desempate a que se refiere el presente apartado será aportada por los licitadores en el momento en que se produzca el empate, y no con carácter previo.
<u>EZOHIKO EDO NEURRIZ KANPOKO BALIOAK DAUZKATEN ESKAINTZAK:</u>	<u>OFERTAS CON VALORES ANORMALES O DESPROPORCIONADOS:</u>

IFK/CIF P2006900A
Tel. 943 344034
Luz./Ext. 932
Donibane kalea, 19
20110 Pasaia

KUDEAKETA
kudeaketa@pasaia.net

Financiado por la Unión Europea NextGenerationEU
GOBIERNO DE ESPAÑA MINISTERIO PARA LA TRANSICIÓN ECOLÓGICA Y EL RETO DEMOGRÁFICO
Plan de Recuperación, Transformación y Resiliencia
PASAIAKO UDALA

Ezohiko edo neurriz kanpoko balioak dauzkaten eskaintzak soilik proposamen ekonomikoari dagokion irizpidearen arabera baloratuko dira.

Hasiera batean, neurriz kanpokotzat edo ausartegitzat joko dira kasu hauetan dauden eskaintzak:

1. Lizitatzaile bakarra aurkezten denean, eta proposamena lizitazioaren oinarrizko aurrekontua baino 25 portzentaje-unitate txikiagoa denean.
2. Bi lizitatzaile aurkezten direnean, eta eskaintzarik txikiena bestea baino 20 portzentaje-unitate txikiagoa denean.
3. Hiru lizitatzaile aurkezten direnean, eta aurkeztutako eskaintzen batez besteko aritmetikoa baino 10 portzentaje txikiagoa denean eskaintza. Hala ere, batez bestekoa kalkulatzeko, eskaintzarik altueraren zenbatekoa ez da kontatuko, baldin eta batez bestekoa baino 10 unitate portzentual handiagoa bada. Nolanahi ere, neurrigabekotzat joko dira batez bestekoa baino 25 portzentaje-unitate beherago dauden eskaintzak.
4. Lau lizitatzaile edo gehiago aurkezten direnean, eta aurkeztutako eskaintzen batez besteko aritmetikoa baino 10 portzentaje-unitate baino gehiago jaisten direnean eskaintzak. Hala ere, eskaintzetako batek batez besteko hori baino 10 portzentaje-unitatetik gora baditu; beste batez besteko bat kalkulatuko da, aipatutako kasu horretan ez dauden eskaintzekin bakarrik. Nolanahi ere, gainerako eskaintzak hiru baino gutxiago badira, kopuru txikiena duten eskaintzen artean kalkulatuko da batez bestekoa.

17.- KONTRATAZIO-MAHAIA

Kontratazio-mahaia honako kide hauek osatuko dute:

Burua:

- Iraitz Pazos Lapido / Mikel Garcia Peñil

Kideak:

- Aitziber Latasa Sorondo, udal idazkaria /

Las ofertas con valores anormales o desproporcionados únicamente se apreciarán sobre el criterio de valoración de “Propuesta Económica”.

Se considerarán, en principio, desproporcionadas o temerarias las ofertas que se encuentren en los siguientes supuestos:

1. Cuando, concurriendo un solo licitador, sea inferior al presupuesto base de licitación en más de 25 unidades porcentuales.
2. Cuando concurran dos licitadoras, la que sea inferior en más de 20 unidades porcentuales a la otra oferta.
3. Cuando concurran tres licitadoras, las que sean inferiores en más de 10 unidades porcentuales a la media aritmética de las ofertas presentadas. No obstante, se excluirá para el cómputo de dicha media la oferta de cuantía más elevada cuando sea superior en más de 10 unidades porcentuales a dicha media. En cualquier caso, se considerará desproporcionada la baja superior a 25 unidades porcentuales.
4. Cuando concurran cuatro o más empresas licitadoras, las que sean inferiores en más de 10 unidades porcentuales a la media aritmética de las ofertas presentadas. No obstante, si entre ellas existen ofertas que sean superiores a dicha media en más de 10 unidades porcentuales, se procederá al cálculo de una nueva media solo con las ofertas que no se encuentren en el supuesto indicado. En todo caso, si el número de las restantes ofertas es inferior a tres, la nueva media se calculará sobre las tres ofertas de menor cuantía.

17.- MESA DE CONTRATACIÓN

La Mesa de Contratación la constituirán los siguientes miembros:

Presidente:

- Iraitz Pazos Lapido / Mikel Garcia Peñil

Vocales:

- Aitziber Latasa Sorondo, Secretaria

Ordezkoa: Manex Etxeberria Egia • Gorka Lizarraga Erro, udal kontu-hartzailea • José Mitxelena Zubizarreta, Zerbitzu, Sare eta Mantentze-lanen Saileko arduraduna / Ordezkoa: Amaia Oiarbide Urtxulutegi Mahaiko idazkaria: • Ion Mitxelena Lasa / Ordezkoa: Maitane Azpeitia Álvarez	municipal / Suplente: Manex Etxeberria Egia • Gorka Lizarraga Erro, Interventor municipal • José Mitxelena Zubizarreta, Responsable del Departamento de Servicios, Redes y Mantenimiento / Suplente: Amaia Oiarbide Urtxulutegi Secretario de la mesa: • Ion Mitxelena Lasa / Suplente: Maitane Azpeitia Álvarez
18.- KONTRATATZEKO GAITASUNA Zuzenbideko eta jarduteko gaitasuna duten pertsona fisiko zein juridikoek parte hartu ahal izango dute kontratazio-jardunbide horretan, baldin eta beren ekonomia- eta finantza-kaudimena eta fidagarritasun tekniko edo profesionala frogatzen badituzte, eta kontratatzeko debekuren bat ez badute, Sektore Publikoko Kontratuen Legean adierazitako arrazoiak direla eta. Kaudimena egiaztatzeko eta ebaluatzeko bideak agiri honen 21.5. klausulan ezarritakoak izango dira. Pertsona fisiko edo juridikoek beren kabuz edo baimendutako ordezkarien bitartez kontratatu ahal izango dute. Ordezkari baten bidez kontratatuz gero, askietsitako ahalordea erabili beharko dute. Pertsona juridiko baten ordez bertako kideren bat azaltzen denean, ordezkari izateko ahalmena daukala egiaztatu beharko du dagozkion egiaztagirien bitartez. Esleipendunaren ordezkariak ere ezin izango du kontratatu, baldin eta lehen aipatutako debekuak badauzka. Pertsona juridikoak kontratuen esleipendun izan daitezke, soilik kontratu horien prestazioak haiek berezkoak dituzten helburu, xede edo jarduera-eremuaren barruan badaude, haien estatutu edo sortze-arauen arabera. Enpresariek, gainera, kontratu hau burutzeko eska daitekeen gaitasun enpresarial edo profesionala izan beharko dute. Aurreko ataletan adierazitako kontratatzeko gaitasun, kaudimen eta debekurik ezaren baldintzak eskaintzak aurkezteko azken egunean bete behar dira, eta kontratua egiteko unean bere horretan iraun behar dute.	**18.- CAPACIDAD PARA CONTRATAR** Podrán tomar parte en este procedimiento de contratación las personas naturales o jurídicas que se hallen en plena posesión de su capacidad jurídica y de obrar, acrediten su solvencia económica, financiera y técnica o profesional y no estén incursas en ninguna de las prohibiciones para contratar establecidas en la LCSP. La solvencia se acreditará de acuerdo con los medios establecidos en la cláusula 21.5 de este pliego. Asimismo, podrán hacerlo por sí o representadas por persona autorizada, mediante poder bastante otorgado al efecto. En caso de contratar por medio de algún representante, deberán utilizar un poder bastante otorgado específicamente a tal efecto. Cuando en representación de una persona jurídica concurra algún miembro de la misma, deberá justificar documentalmente que está facultado para ello. Tanto en uno como en otro caso, al representante le afectan las causas de incapacidad para contratar citadas. Las personas jurídicas solo podrán ser adjudicatarias de contratos cuyas prestaciones estén comprendidas dentro de los fines, objeto o ámbito de actividad que, a tenor de sus estatutos o reglas fundacionales, les sean propios. Los/as empresarios/as, además, deberán contar con habilitación empresarial o profesional que, en su caso, sea exigible para la realización de la actividad o prestación que constituya el objeto del contrato. Las circunstancias relativas a la capacidad, solvencia y ausencia de prohibiciones de contratar a las que se refieren los apartados anteriores, deberán concurrir en la fecha final de presentación de ofertas y subsistir en el momento de perfección del contrato.
19.- PROPOSAMENAK AURKEZTEKO LEKUA ETA EPEAK	**19.- LUGAR Y PLAZO DE PRESENTACIÓN DE PROPUESTAS**

IFK/CIF P2006900A
Tel. 943 344034
Luz./Ext. 932
Donibane kalea, 19
20110 Pasaia

KUDEAKETA
kudeaketa@pasaia.net

Financiado por la Unión Europea NextGenerationEU
GOBIERNO DE ESPAÑA MINISTERIO PARA LA TRANSICIÓN ECOLÓGICA Y EL RETO DEMOGRÁFICO
Plan de Recuperación, Transformación y Resiliencia
PASAIAKO UDALA

Proposamenak aurkezteko epea 15 egun naturalekoa izango da, iragarkia kontratatzailearen profilean argitaratu eta hurrengo egunetik kontatzen hasita. Euskadiko Kontratazio Publikoaren kontratatzailearen profilera sartzeko, esteka hau erabili behar da http://www.contratacion.euskadi.eus	El plazo de presentación de proposiciones será de 15 días naturales desde el día siguiente de la publicación del anuncio en el perfil del contratante. El acceso al perfil de contratante de la Contratación Pública de Euskadi se efectuará a través del siguiente enlace http://www.contratacion.euskadi.eus
Pasaiako Udalaren eta haren erakunde autonomoen KONTRATUGILEAREN PROFILA Eusko Jaurlaritzaren Kontratazio Sisteman txertatuta badago ere, sistema horretarako sarbidea helbide honetatik ere egin ahal izango da: http://www.pasaia.eus/eu/kontratatzailearen-profila	Si bien el **PERFIL DEL CONTRATANTE** del Ayuntamiento de Pasaia y sus organismos autónomos se encuentra integrado en el Sistema de Contratación del Gobierno Vasco, el acceso a dicho sistema también podrá llevarse a cabo a través de la siguiente dirección: http://www.pasaia.eus/eu/kontratatzailearen-profila
Proposamenak soilik bitarteko elektronikoen bidez aurkeztuko dira, agiri honen 20. klausulan ezarritako eran, Kontratatzailearen Profilean argitaratzen den iragarkian adierazitako epearen barruan.	**Las proposiciones se presentarán exclusivamente por medios electrónicos**, en la forma establecida en la clausula 20 del presente pliego, dentro del plazo señalado en el anuncio de licitación publicado en el Perfil del Contratante.
Baldintza-agiriak eta agiri osagarriak kontratatzailearen profilean izango dira eskuragarri.	Se podrán consultar en el perfil del contratante los pliegos y la documentación complementaria.
Baldintza-agiriei edo dokumentazio osagarriei buruzko informazio osagarria eskatzen badute lizitatzaileek, informazio hori emango zaie proposamenak aurkezteko ezarritako epea bukatu baino sei egun lehenago, baldin eta eskaera proposamenak aurkezteko epea bukatu baino hamabi egun lehenago egiten bada, gutxienez.	La información adicional sobre los pliegos o sobre la documentación complementaria que, en su caso, soliciten los licitadores será facilitada en el plazo de 6 días antes de la fecha límite fijada para la recepción de proposiciones, siempre que la solicitud haya sido realizada al menos doce días antes del vencimiento del plazo de recepción de las proposiciones señalado anteriormente.
Proposamenak egiteko beharrezkoa bada lekura bertaratzea edo agiriari erantsitako dokumentazioa “in situ” kontsultatzea, eskaintzak eta parte hartzeko eskaerak aurkezteko epeak luzatu egingo dira, eragindako interesdunek proposamenak prestatzeko nahikoa denbora izan dezaten.	Cuando las proposiciones solo puedan realizarse después de una visita sobre el terreno o previa consulta «in situ» de la documentación que se adjunte al pliego, los plazos mínimos para la presentación de las ofertas y solicitudes de participación se ampliarán de forma que todos los que interesados afectados puedan tener conocimiento de toda la información necesaria para preparar aquellas.
20.- PROPOSAMENAK AURKEZTEKO ERA	**20.- FORMA DE PRESENTACIÓN DE LAS PROPUESTAS**
Prozeduran parte hartzeko eskatutako dokumentazioa eta dagozkion proposamenak artxibo edo gutun-azal elektronikoen barruan aurkeztuko dira; ezin dira paperean aurkeztu.	La documentación exigida para tomar parte en el procedimiento y las correspondientes proposiciones se presentará dentro de archivos o sobres electrónicos, sin que dicha presentación pueda

	hacerse en papel.
Eskaintzak aurkezteko **BITARTEKO ELEKTRONIKOAK BAKARRIK** erabiliko dira, honako aplikazio honen bidez: LIZITAZIO ELEKTRONIKORAKO SISTEMA; eta sistema hori hemen kokatuta dago: KONTRATAZIO PUBLIKOA EUSKADIN PLATAFORMA CONTRATACIÓN PÚBLICA EN EUSKADI SISTEMA DE LICITACIÓN ELECTRÓNICA	La presentación de ofertas se realizará **UTILIZANDO EXCLUSIVAMENTE MEDIOS ELECTRÓNICOS** a través de la aplicación denominada SISTEMA DE LICITACIÓN ELECTRÓNICA ubicada en KONTRATAZIO PUBLIKOA EUSKADIN PLATAFORMA CONTRATACIÓN PÚBLICA EN EUSKADI SISTEMA DE LICITACIÓN ELECTRÓNICA.
Proposamenak elektronikoki aurkezteko beharrezko informazioa eta zehaztapen teknikoak, zifratzea eta dataren baliozkotzea barne, Euskadiko Kontratazio Publikoaren Plataforman jasota daude (www.Contratacion.euskadi.eus).	La información y especificaciones técnicas necesarias para la presentación electrónica de las proposiciones, incluido el cifrado y la validación de la fecha, se encuentran alojadas en la Plataforma de Contratación Pública de Euskadi (www.contratacion.euskadi.eus).
Lizitazio elektronikoari buruzko zalantzak edo gertakariak konpontzeko zerbitzua: 945016298.	Servicio de soporte para resolver dudas o incidencias sobre licitación electrónica: 945016298.
Proposamenek ondorengo gutunak izango dituzte:	Los proposiciones constarán de los siguientes sobres:
I. A GUTUN-AZALA	I. SOBRE A
Aurretiazko baldintzak betetzen direla egiaztatzeko dokumentazioaren gutun-azalean lizitatzaileek honako agiri hauek sartuko dituzte: 1. Erantzukizunpeko adierazpena, SPKLren 140. artikuluan xedatutakoarekin bat; eredu honen arabera: Europako Kontratazio Agiri Bakarra (EKAB), urtarrilaren 5eko 2016/7 araudiaren bidez onartua. Adierazpena sinatuta aurkeztuko da, dagokion identifikazioarekin.	Dentro del sobre de “Documentación acreditativa del cumplimiento de requisitos previos”, los licitadores deberán incluir: 1. Declaración responsable de conformidad con lo dispuesto en el artículo 140 LCSP, cuyo modelo consiste en el documento europeo único de contratación (DEUC), aprobado a través del Reglamento (UE) nº 2016/7, de 5 de enero, que deberá estar firmada y con la correspondiente identificación.
Agiri hori helbide honetan beteko da: https://ec.europa.eu/growth/tools-databases/espd/filter?lang=es, eta kontratatzailearen profilean argitaratutako fitxategiaren bidez.	Su cumplimentación se realizará a través de la dirección https://ec.europa.eu/growth/tools-databases/espd/filter?lang=es y el archivo publicado en el perfil del contratante.
Enpresariak beste enpresa batzuen kaudimena edo bitartekoak erabiltzen baditu, Legearen 75. artikuluarekin bat, beste enpresa horiek ere erantzukizunpeko adierazpena aurkeztu beharko dute, kasu horietarako beharrezko informazioa jasotzen duena, Europako kontratazio agiri bakarrarekin bat.	En los casos en que el empresario recurra a la solvencia y medios de otras empresas de conformidad con el artículo 75 de la Ley, cada una de ellas también deberá presentar una declaración responsable en la que figure la información pertinente para estos casos con arreglo al formulario normalizado del documento europeo único de contratación.
2. Hainbat enpresari aldi baterako enpresa-elkarte batean bilduta aurkezten badira, aldi baterako enpresa-elkartea osatzeko konpromisoa aurkeztu beharko dute, agiri honen I. eranskinean jasotzen den ereduaren arabera, SPKLren 69. artikuluaren 3. atalean eskatzen denarekin	2. Compromiso, en el caso de que varios empresarios concurran agrupados en una unión temporal, conforme al modelo que se recoge en el Anexo II del presente pliego, de constituir la unión temporal, de conformidad con lo exigido en el apartado 3 del artículo 69 LCSP, con una duración que será

IFK/CIF P2006900A
Tel. 943 344034
Luz./Ext. 932
Donibane kalea, 19
20110 Pasaia

KUDEAKETA
kudeaketa@pasaia.net

T020300

Financiado por la Unión Europea NextGenerationEU
GOBIERNO DE ESPAÑA MINISTERIO PARA LA TRANSICIÓN ECOLÓGICA Y EL RETO DEMOGRÁFICO
Plan de Recuperación, Transformación y Resiliencia
PASAIAKO UDALA

bat; eta elkarte horren iraupena, gutxienez, kontratua iraungi artekoa izango da.	coincidente, al menos, con la del contrato hasta su extinción.
Konpromiso-idatzian honako datu hauek jasoko dira: elkartea osatzen dutenen izenak eta zirkunstantziak; horietako bakoitzaren parte-hartzea; eta kontratua esleitzen bazaie, formalki aldi baterako elkartea eratzeko konpromisoa. Agiri hori elkartea osatzen duten enpresa guztien ordezkariek sinatu beharko dute.	En el escrito de compromiso se indicarán: los nombres y circunstancias de los que la constituyan; la participación de cada uno de ellos, así como la asunción del compromiso de constituirse formalmente en unión temporal en caso de resultar adjudicatarios del contrato. El citado documento deberá estar firmado por los representantes de cada una de las empresas que componen la unión.
Aldi baterako enpresa-elkarte batek parte hartzen duen kasu guztietan, enpresa parte-hartzaile bakoitzak erantzukizunpeko adierazpena ere aurkeztu beharko du, dagokion informazioa Europako kontratazio-agiri bakarreko formularioan jasota.	En todos los supuestos en que varios empresarios concurran agrupados en una unión temporal, también se aportará una declaración responsable por cada empresa participante en la que figurará la información requerida en estos casos en el formulario del documento europeo único de contratación.
Erkidegotik kanpoko enpresak badira, SPKLren 68.1. artikuluan araututako txostena aurkeztu beharko dute. Halaber, kontratua Espainian gauzatzekoa bada, kontratutik zuzenean nahiz zeharka sortutako gorabehera guztietarako, Espainiako maila guztietako epaitegi eta auzitegien jurisdikzioaren menpe jartzen direla jakinarazteko adierazpena, eta enpresari legokiokeen atzerriko jurisdikzioko foruari uko egiten diotela adierazteko, kasua hori balitz.	Si trata de operadores económicos no comunitarios, deben presentar el informe regulado en el art. 68.1 LCSP. Además, las empresas extranjeras deberán aportar una declaración de sometimiento a la jurisdicción de los juzgados y tribunales españoles de cualquier orden, para todas las incidencias que de modo directo o indirecto pudieran surgir del contrato, con renuncia, en su caso, al fuero jurisdiccional extranjero que pudiera corresponder al licitante.
Kontratazio-organoak edo -mahaiak egiaztagiri guztiak edo batzuk aurkezteko eskatu ahal izango diete hautagaiei edo lizitatzaileei, baldin eta uste badute arrazoizko zalantzak daudela adierazpenaren indarrari edo fidagarritasunari buruz, prozedura ondo garatzeko beharrezkoa denean eta, nolanahi ere, kontratua esleitu aurretik.	El órgano o la mesa de contratación podrán pedir a los candidatos o licitadores que presenten la totalidad o una parte de los documentos justificativos, cuando consideren que existen dudas razonables sobre la vigencia o fiabilidad de la declaración, cuando resulte necesario para el buen desarrollo del procedimiento y, en todo caso, antes de adjudicar el contrato.
Hala ere, enpresaria Sektore Publikoko Lizitatzaileen eta Enpresa Sailkatuen Erregistroan edo haren baliokide autonomikoan inskribatuta badago SPKLren 341. artikuluan aurreikusitako irismenarekin, edo Europar Batasuneko estatu kide bateko datu-base nazional batean agertzen bada, hala nola enpresaren espediente birtual batean, dokumentuak elektronikoki biltegiratzeko sistema batean edo aurrez kualifikatzeko sistema batean, aipatutako dokumentu-organoek doan egiaztatu ezin dituzten dokumentuak aurkeztu beharko dira.	No obstante, cuando el empresario esté inscrito en el Registro de Licitadores y Empresas Clasificadas del Sector Público o su equivalente autonómico con el alcance previsto en el artículo 341 LCSP, o figure en una base de datos nacional de un Estado Miembro de la Unión Europea, como un expediente virtual de la empresa, un sistema de almacenamiento electrónico de documentos o un sistema de precalificación, y éstos sean accesibles de modo gratuito para los citados órganos, no estará obligado a presentar los documentos justificativos u otra prueba documental de los datos inscritos en los referidos lugares.

Esleipen-proposamena jasotzen duen lizitatzaileak, kontratua esleitu aurretik, kontratazio-organoaren aurrean 21.5 klausulan eskatutako dokumentuen jabetza eta baliozkotasuna egiaztatu beharko du. Beraz, ez da beharrezkoa klausula horretan eskatutako dokumentazioa aurkeztea proposamenak aurkeztean, nahikoa izango da Europako kontratazio-agiri bakarreko ereduaren arabera erantzukizunpeko adierazpena aurkeztea.	El licitador a cuyo favor recaiga la propuesta de adjudicación, deberá acreditar ante el órgano de contratación, previamente a la adjudicación del contrato, la posesión y validez de los documentos exigidos en la cláusula 21.5. del presente pliego. No será por tanto necesario presentar la documentación exigida en la cláusula 21.5. del presente pliego en el momento de presentación de proposiciones, bastando la presentación de la declaración responsable que se adjunta como según el modelo del documento europeo único de contratación.
3. III. eranskina.- "JAKINARAZPEN ETA KOMUNIKAZIOETARAKO DATUAK", lizitatzaileek jakinarazpen edo komunikazio elektroniko bat eskuragarri dagoela jakinarazteko helbide elektronikoa adieraz dezaten.	3. Anexo III .- "DATOS A EFECTOS DE NOTIFICACIONES Y COMUNICACIONES" del presente pliego a los efectos de que los licitadores indiquen la dirección de correo electrónico donde recibirán el correspondiente aviso de que se encuentra disponible una notificación o comunicación electrónica.
4. Lizitatzaileek, halaber, XII. ERANSKINEKO agiriak aurkeztu beharko dituzte, behar bezala beteta eta sinatuta. MRRri buruzko erantzukizunpeko adierazpenak, Berreskuratze, Eraldaketa eta Erresilientzia Planaren esparruan.	4. Los licitadores deberán presentar así mismo la documentación rellanada y firmada del ANEXO XII. Declaraciones responsables relativas al MRR en el marco del Plan de Recuperación, Transformación y Resiliencia.
II. B GUTUN-AZALA	II. SOBRE B
